

IRITZIA
Mila Osoro

ERREPORTAIA
Umeak eta *IHESa*

UDALETXETIK
300 kiloko
eskultura *King-
Kongeko* zubian

BERBETAN
Gorka Mujika,
Gazteen Bandaren
zuzendaria

BARREN

1997ko azaroaren 21a
V. urtea - 215. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Musical score for the piece "Sanfa Zezifra". The score is written on a grand staff with treble and bass clefs. It includes dynamic markings such as *f* (forte) and *mf* (mezzo-forte). The score is numbered from 1 to 52. The title "Sanfa Zezifra" is written in a large, stylized font across the middle of the score.

Musikarien zaindaria



“Musika bizitza izpiritualaren eta materialaren arteko bitartekaria da” Bettina Von Arnim

EDIFICACIONES LEKU EDER, S.A.



SALGAI:

ETXEBIZITZAK

GARAJEAK

LOKAL

KOMERTZIALAK

GARAJEAK

ALOKATZEN DIRA

ZABALIK EGUNERO

17:00etatik

19:00etara

Bulegoak: Aita Agirre plaza, 5 behea Tel: 929 43 35 88 / 20 83 16

EIBARKO LIBURU AZOKA

**Igandea 23
azken eguna**

**°/010ek^o
belnerap^{ena}**

**Golzed
Goizei**

**Xrratsaidei'
Arratsaidr**

ANITOLATZAILIERi•

BABESLEA

LAGUNTZAILE&



MILA OSORO

Zein epraz juzkatzen ditugun pertsonald

Ez da denbora asko nire lagun batek idatzi polit batzuk pasatu zizkidala nik irakurtzeko. Denak zeuden oso ondo baina batekin geratzekotan, honako hau esaten zuena aukeratuko nuke: "si juzgas a la gente no tienes tiempo de amarla". Erdaraz dago idatzita, hori esan zuen emakumea ez baita euskalduna. Kalkutako Tere sak esana da.

Hau irakurri eta nire buruari buelta pare bat eman ondoren, esaldi hau zein egia biribila den konturatu nintzen. Zer-nolako erraztasunarekin bihurtzen garen batzuk besteen epaile.

Egun hauetan bizi-bizian dagoen epaiketa bat etorri zait gogora. Joan zen astean irratan entzuten nuen pertsona bati galdetu ziotela ea HBko bideoa ikusi zuen eta zer iruditzen zitzaion epaiketa hau. Haren erantzuna bat-batekoa izan zen: "ez daukat nik ezer ikusi beharrik zein jende motaren eskutik datorren jakinda, denak baitira biltzaileak". Erantzun honekin epaitzen ari

zela iruditzen zait. Baina, zoritxarrez, horrelako zenbat entzuten dugu egunero, gehiegi esango nuke.

Politikan eta gai serioetan gertatutako zerbait da. Baina txan'ena da gure artean ere, gure bizimodu arruntean, denbora gehiegi alferrik galtzen dugula inguruko jendearen bizimodua aztertzen eta konpontzen, nahiz eta arazorik gogorrenak geure etxe barruan eduki.

Gauza horiek, ordea, ez ditugu ikusi ere egin nahi izaten. Errazagoa egiten zaigu gure gauzak bazterrean laga eta besteen trapu zaharrak kaleratu eta astintzea; azken finean, besteen epaile bihurtu.

Honekin ez dut esan nahi denok elkar maitatu behar dugunik, beti edukiko baititugu gure gustukoak ez direnak, eta horiek maitatzea

gehiegi eskatzea dela uste dut. Baina besterik ez bada ere, errespetatu ditugun eta ez gaitetzen bihur h orrelako erraztasunarekin haien epaile.

"Txarrena da gure artean ere, gure bizimodu arruntean, denbora gehiegi alferrik gaitzen dugula inguruko jendearen bizimodua aztertzen eta konpontzen"

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

v 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGuNTMILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	AndresAlberdi, Rosa Agirregabiria
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
Pualizirnea	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Miket Comejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
M. Angeles Ortuoste, FlafaAlvarez	
KoLABORATZAILEAK	frati Agirreazaklegi, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Eduarne Bilbao, M. Angeles Exoslto, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guille, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrarlagaa, Jokin Martinez, Juan Luis Mugert2a, Ongarri Zine Kluba, Pello Flublo, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar
Unai Villena eta Julen Zabaleta	
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larraftaga
INDSIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE eonoAiLuA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura

Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



na' **DA N O BAT**
MAO11INAS HERRAMIENTA

imr **GOITI**
GRUPO DANCRAT

Frontean berririk ez?

Barneko frontean, gure askatasuna-
ren aurka, ejerzitoa eta militarismoa
aurrera egiten saiatzen dira. Defentsa
ministerioak eskoletan "espiritu militarra",
hots, Espatia eta espatio-la zer den sarrarazi
nahi du. Hezkuntza ministerioak bere
historiaren bertsioa, irabazleen historia,
haurren buructan sartu nahi du. Orain beste
zozketa bat egin dute, milaka gazte beraien
interes ekonomiko eta politikoen menpeko
loteriaren txartel bihurtuz. Gastu polizial-
militarrak gora doaz, gizarte, osasun,
langabezia... arlokoak beherantz doazen
bitartean. NAZKA.

Barrikaden alde honetan eutsi egiten
dugu. Milaka gaztek bahiketari uko egiten
dio, gartzela eta inhabilitazioa pairatzen
duten arren. Euskal Herriko ehun gazte
inguru gartzelan daude. Hainbat gazte gerra
kontseiluen zain dago. Baina ez dugu amore
ematen, mobilizazioek aurrera jarraitzen
dute. INTSUMISIOA.

Baina beti dago bizkarretik erasotzen
duenik. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du
gure eragozpen fiskala onartzen. Udalak
errolda egiten jarraitzen du ejerzitoari
lagunduz urtero Elgoibarko dozenaka gazte
bahitu ditzen. Nabarmena da bertan agintzen
dutenek ez dutela beraien eserleku eta
soldatak gu defendatzeagatik kolokan
janiko. Politikarien intsumisioaren aldeko
adierazpenak, haizeak darabiltzan hitz
hutsak baino ez dira. Dagoeneko Gurutze
Gorria indarrez eragozle direnei etekina
ateratzeaz salatua izan bada, orain Udalaren
Musika Banda gehitu zaio. LOTSA.

Musika Bandak Estatuarekin Ordezko
Zerbitzu Sozialaren txantaia inposatzen
laguntzea gehiegizkoa da. Gazteok
soldaduzkaren aurka darabiltzan borrokari
eraso zuzena egitea da. Zuek eta zuek
bezalakoek ejerzitoarekin kolaboratzen
duzuen bitartean, gazteok errepresioa,
inhabilitazioa eta gartzela zigorrak
pairatzen jarraituko dugu. Balore
autoritario, sexista, arrazista, xenofobo
eta zapaltzaileen bermatzaile bihurtzen
zarete. Zenbaten truke? Noizko martxa
militarren kontzertu bat?

Utzi itxurakeria, ez baituzue inor
engainatzen, eta elkartu zaitezte gurekin
gizarte desmilitarizatu baten alde.

Justo Arriola

PVCari bai!

BARRENeKo 213. zenbakian
"Epe letan" izeneko gehigarrian,
PVCari buruz agertu zen informazioaren
inguruan adierazpen hauek egin nahi
ditut:

PVCzko leihoak duela 40 urte baino
gehiago ari dira jartzen. Material hau
gutziz birzikilatzen da. Erabilerara ugari
ditu: zoluetan jartzen da, PVCzko jantziak
egiten dira, automobilaren industrian,
eraikuntzan, elektronikan eta beste gauza
askotan erabiltzen da.

PVCak sua hartzen du (ez da urtzen)
su-garra alboan jarriz gero. Sugarririk ez
badago, berez itzaltzen da. Egia da usain
pikantea sortzen duela baina abantaila dela
esango nuke, alararako seinale delako.
PVCzko perfilak pegatu, pulitu, margotu,
soldatu etab. egin daitezke.

Ura, xaboia edo beste edozein sustantzia
aztertuz gero, kloroa daukatela ikusiko
genuke baina ez dut datuetan luzatzerik
nahi.

PVCari buruz benetako informazioa nahi
duenak Gasteizen egoitza duen ASEFAVE
Elkartera jo dezake.

E. Alberto Blanco
ASEFAVEko Injineru
Industrialia

Esker oneko mezua

nsasun Pastoralara osatzen dugun
LJgu zti ok eskerrik beroenak luzatu
nahi dizkizuegu Bailarako Gaixoen
Topaketan Iagun izan zintuztegun guztioi.
Benetan eskertu nahi ditugu zuen laguntza
eta donazioak. Eskerrak herriko soziedadeei,
Eroskiri, Altzolako Urak enpresari, Aitz-Bizkar
Ardoak edari-banatzailearl eta bereziki Gure-
Bide elkarteari bazkaria egiteko lokala
uzteagatik.

Elgoibarko
Osasunaren Pastoralara

KEXAK

• **Herritar** batek deitu digu salaketa hau egiteko: "Arregitorre 10, 12 eta 14 etheen atzeko parkea benetan egoera penagarrian dago. Ea noiz ematen duten buelta bat Udaletxekoek eta konpontzen duten behin-goz. **Lehen daude parke gutxi herrian eta gainera ez badituzte zaintzen...!"**

• **San Rokeko auzotar** baten kexa jaso dugu: "Igandeetan, goizeko 7:30erako garbitzaileak gure auzoa garbitzen hasten dira makinarekin. Kaleak garbitzea behar ez-koa dela badakidan arren,

• "Autoko zenizeroa **Karakaten hustu zuena** salatu nahi dut. Hurrengoan zenizeroak gainezka egiten dionean, poltsikoan sartzeko eskatuko nioke, akaso sentsazio gozoren bat ere sentituko du. **Mintxetako aparkalekuan klinexak botatzen** dituztenei, berriz, azpiak garbitu ostean aparkalekuak zikindu beharrik ez dagoela gogorarazi nahi diet. Eta gu txerriek lan hanka zituztelakoan!"



TXALOAK

• Gaixoen Egunean zaintzaile lanetan ibili zen batek **Gurre-Bide elkarte**an **bazkaria zerbitzatzen** ibili zirenak txalotu nahi ditu, "borondatezko lan ederra egin zutelako".

goizeko 7:30ean zeregin horretan hasia **gehiegixto iruditzen zait, auzotar gehienak ordu horretan lotan baikaude**. Gehiegi eskatzea ez bada, behintzat, gure auzoa berandua-go garbitzen hasteko eskatu nahi diet garbiketataradunei".

• **Kirolzale batzuk Kiroldegiko markagailuaren egoeraz** kexatu zaizkigu. Partiduak ikusten egoten direnean **ez omen dago markagailuaz bat ere fidatzerik**. Gainera, aspaldiko ipuina omen da. Ea laster konpontzen duten.

AI, ESAN?



Jon Etxabe

Abokatua

Aste honetako telefono deia **Jon Etxabe abokatu elgolbartarrari** luzatu diogu. Jon abokatua da eta hilaren 27an epaiketa bat dauka. Baina kasu honetan ez doa abokatu bezala, bera da akusatua, bezero bat euskara hutsean, itzultzailerik gabe, defendatzeagatik.

- **Zer dela eta epaitzen zaituzte?** Hobeto esan, akusatua baino gehiago zigor mehatxupean nago, hizkuntza arazo batek sortutako kausa penal batean, hain zuzen ere. Bezero bat defenditzeko izendatu ninduten eta hori medio, Gipuzkoako Entzutegiko Presidentea denak, itzulpenari uko egiten badiot, zigortua izango naitzela ohartarazi dit.


- **Zer da juizio horretan epaituko dena? Zu zeu, euskara, euskaldunok,...**? - Hemen epaituko dena da ea euskaldunok prest gauden gaztelania baino ez dakiten epaileak ametitzera edota, guk uste dugun bezala, ea hemengo hizkuntza propioa ere jakin behar duten.

- **Noiz arte segitu beharko dugu eskubiderik oinarritzkoenak ere epaitegietan defendatzen?** - Honetan arazo nagusia da boterea duten politikariek ez dutela euskaldunoi zor zaigun errespetoa. Orain, Madrilen, Botere Judizialaren Lege Berria bozkatzera doazenean, hemengo politikarien arabera nahikoa da epaile izateko oposaketetan euskara "meritu" bezala baloratzea eta ez "ezinbesteko betebeharrak" modura. Beraz, gauzak berehala aldatzen ez badira, sufrikario luzea datorkigu euskaldunoi.

- **Zein zigor jar diezazukete?** Epaile jaunaren mehatxuak Kode Penaleko 556. artikulua aplikatuko zaigula dio eta horri erreparatuz, epailearenganako desobedientzia delituak sei hilabetetik urtebeterainoko gartzela zigorra izan dezake.



ESKERTZA
1997ko azaroaren 14an, 58 urte zituela hii zen
JILTAN ETXEBERRIA ZLIBIAURRE Ererz sendiak bihotzez
ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizklunetara agertu izana.
Domekan, hilak 23, eguercliko 12:30ean meza izango da Parrokian haren
arimaren alde. joaten zaretanoi eskerrak alde zurretik.



Umeak eta HIESa

zaroaren 17an hasi eta 23ra bitartean Errotatxok HIESari buruzko Inforinazio eta Prebentzio Astea anwlatu du. Urtero bezala, erakuketa, hitzaldiak, mahaindu ruak eta HIESaz hil direnen aldeko omenaldia egingo dira. Gaurkoan erreportaje inforformatibo bat egin dugu, Errotatxok proposatua, eta dokumentatua. Azken urteotan HIESak izan duen bila kaerari buruz arituko gara. Batez ere mundu mailan HIES gaitzaz jota dauden haurrak kontuan izanik.



direla kalkulatzen dute ONUSIDA eta OMS erakundeek. 1996. urtean, 1.000 haur hil ziren egunero HIESak jota eta are gehiago kutsatu. 2010 aiterako, VIH birusaren zabalkundea ez bada geratzen, HIESak %75a igo dezake haurren heriotza, batez ere garatu gabeko herrialdeetan.

Mundu berria

Emakume seropositiboetatik jaiotako haur guztiak ez dira hirusaz kutsatzen baina arriskua handiagoa da garatu gabeko herrialdeetan. Herrialde industrializatueta ama seropositibo baten seme-alabek birusa jasotzeko atTiskua %8 da eta garatu gabeko herrialdeetan kopurua %25-44ra igotzen da. Honen arrazoiak, herrialde ez garatuetako emakumeek duten elikadura pobrea, egoera immunodeprimitua, haurdunaldi komplikatuak, haurraren bularra ematea eta tratamendu eza dira, besteak beste.

Azken batean, gaur egungo haurrek hitza osoan zehar aurre egin beharko diote HIESari, VIHaz kutsatzeko arriskua izango dute euren bizitzako etapa desberdinetan: haurrak direnean, gaztetan, helduak direnean... Umeak oso bulnerableak dira eta beharrezkoa da heziketa, informazioa eta zerbitzuak bere osotasunean jasotzea. Mundu berri baten aurrean gaude eta guztiok egokitu behar dugu gizarte herrira, bakoitzak duen erantzukizuna hartuz. Epidemia munduan hedatzen ari da eta momentuz ez dago ez txertorik ez sendagarririk birusaren kontra, nahiz eta asko aurreratu den.

1997ko kanpaina IESaren kontra

VIHIESari buruzko Nazio Batuen Programa Bateratuak (ONUSIDA) 1997 urtean zehar mundu mailako kanpaina antolatu du HIESak izan duen tendentzia aldaketa ezagutzera emateko. Kanpaina, batez ere, "Haurrak HIESa bizi duen Mundu batean" leman oinarritzen da. Kanpainak lau helburu nagusi ditu:

11, HIESak ume, familia eta komunitatean duen eraginaren ezagutza.

2 VIHaren kutsadura gutxitzeko neurriak gehitzea, politika hobetzea, partehartzea bultzatzea eta haurren artean epidemiak izan dezakeen eragina ahalik eta gehien gutxitzea.

1 Haurrak eta euren familiak kalitatezko hezkuntza jasotzea eta VIH/HIESari buruzko informazio, prebentzio eta zerbitzua izateko aukera izatea.

.43 Umeen eskubideen, giza eskubideen eta VIH/HIESaren artean dagoen erlazioa ulertaraztea.

1 Tendentzia aldaketa

Toxikomano eta homosexualek jaten zuten birusa izateari laga dio HIESak. Izan ere, azken urteotan epidemia honen bilakaera izugarria izan da eta edozein kutsa daiteke. Praktika arriskutsuak daude, ez arrisku taldeak. Orain arte helduen artean hedatzen bazen ere VIHa, gero eta gehiago dira birusaz kutsatzen diren haurrak: seropositiboa den amarengandik, kutsaturiko odolaren eta halamoduzko xiringen erabileraren ondorioz, harreman sexualen -abusoak, koakzioa eta komertzto sexuala barne- eta xiringen bidezko drogen kontsumoaren bidez.

VIH-HIES epidemia 1980. urte hasieran sortu zenetik, mundu mailan 15 urtetik beherako 3 milioi haur kutsatu



MAURI URTURI

Pe. Iatra eta HIE'Sa duten
haurren eskolarizazioaren arduraduna

"Praktika arriskutsuak ebitatu behar dira HIESa ez hartzeko"

- 1987. urtetik zabilta HIFS

- Bai, hala da. Garai hartan izan zen HIESa zuen ume baten lehen kasua eta arazoak izan ziren, haurraren eskolako ikasleen zenbait guraso ez baitzeuden ados euren seme-alaben artean HIESa zuen lagun bat izatearekin. Osasunean lanean genbiltzan guztiok oso garbi geneukan HIESa duten haurrek ere eskubide osoa dutela eskolara joateko eta horrek ez duela hausten beste haurrek osasuntsu egoteko duten eskubidea.

- Ez dago inolako arriskurik. Sekula ez da kutsadura horizontalik izan, hau da, haur batengandik beste batengana. VIHa duten haur guztiak bertikalki izan dira kutsatuak, amaren sabelean zeudenean jaso zuten birusa. Umek lasai jolas dezakete euren artean, elkarri jo, hagingadak emari... Hau da, bizitza erabat normala egin dezakete inolako arriskurik izan gabe.

- Eme-alaha guztiak seropositiboak

- Ez. Azken bi urteotan egin diren aurrerakuntzei esker, haurdun dagoen emakume seropositibo batek tratamendu konkretu bat jarraitzen badu, %92ko aukera du seme-alaba osasuntsua izateko. Gaur egun ama seropositiboak tratamendua jarraitzen badu, esan bezala, %92ko aukera du umeari antigorputzak bakarrik igortzeko. Kasu horretan, umek jaso dituen amaren antigorputzak desagertu egingo dira eta haurra osasuntsua izango da. Tratamendua ondo aterako ez balitz, %8a, amak antigorputzak ez ezik VIHa ere igorriko dizkio umeari eta kasu horretan, nahiz eta amaren antigorputzak desagertu, birusa ere

baduenez, haurrak bere antigorputzak sortuko ditu eta ume hori infektatua dagoela esaten da.

- Euskal Autonomi Erkidegoan jaso ditugun azken datuen arabera, 120 haur inguru daude kutsatuak. Horietatik 65 umek HIESa dute. Ume nagusienak 14 urte ditu eta gazteena jaro berria da.

- Bai, sotilagoa da baina oraindik ere diskriminazioak jarraitzen du. Gure lana da haurra eta eskola diskriminaziotik babestea. Horretarako, beharrezkoa da konfidentzialsuna izatea, hau da, kutsatutako haur bat dagoenean umearen tutoreak eta eskolako zuzendaritzak bakarrik jakingo dute eta konfidentzialsun osoa eskatzen zaie. Zoritxarrez, jendea oraindik ez daue prestatua eta errekazio soziala, "badaezpadakoa" izaten da, hau da, kutsatua daudenak diskriminatuz.

- Bai, guztiok dakigu zein diren kutsatzeko bideak baina informazioa izateak ez du esan nahi portaerak aldatuko direnik. Informazioa emateaz gain, jarrerak ere landu behar dira.

1983an HIESaren lehen kasua izan zenetik gaixotasuna garatu zuten pertsonen %70a xiringak konpartitzeagatik kutsatu ziren eta gainontzeko %30a harreman sexualen ondorioz, horietatik %5a bakarrik izanik homosexualak. Hemen sartzen dira, baita ere, 1985 urte aurretik odol transfusioen bidez kutsatu zirenak, garai hartan ez baitzen eza-

gutzen HIESa birusa zela eta odolaren bidez kutsatzen zela. 1997ko datuen arabera, aldiz, HIESaz gaixotu diren pertsonen %20 hanteman sexualen bidez kutsatu dira.

- Ez, praktika arriskutsuez hitz egin behar da. Hau da, pertsona batek egunean 50 harreman sexual izan ditzake baina beti preserbatiboa erabiltzen badu ez dauka VIHa jasotzeko an'iskurik. Beste batek, aldiz, urtean behin bakarrik izaten badu harreman sexuala baina ez badu babesik erabiltzen, praktika arriskutsu bat egiten ari da eta aurrekoak baino aukera handiagoa du birusaz kutsatzeko. Praktika arriskutsuak dira preserbatibo gabe harreman sexualak izatea edo xiringak konpartitzea.

- Ez, asko ari da aurreratzen eta epe laburrera HIESa gaixotasun kronikoa izango da, luzaro iraungo duena baina heriotza tasa jaitsi egingo da.



Zein musika mota duzu gogoko?




IGOR ZULAIKA
19 urte, ikaslea

Heavyxa: Scorpions, Iron Maiden, Halloween... Musika gogorra. Disko asko erosten ditxut, sasoi batian astero bat. 200 konpakto edo eukiko ditxut etxian.



SONIA ASTIGABRAGA
25 urte, dendaria

Musika modernua, oin entzuten dana, "Ella baila sola" eta hoiek. Oso gustura jungo nitzake Tina Turner-en kontzertu batera, beti gustau izan jata asko.



MIKEL GOROSTIZA
74 urte, jubilatua

Klasikua eta zarzuelak benetan politxak. dia. Oin operia piskat gehixo ulertu bihar da baina abotsak gustatzen jataz. Elgoibarko Bandia entzutera ere juten naiz.




AINHOA FIGUEIREDO
15 urte, ikaslea

Pop musika. Gustatzen zaizkidan gehienak kanpotarrak dira: amerikarrak, ingelesak... Erosi dudan azken diska Nek italiarrarena izan da, asko gustatzen zait.



ANA MONTERO
51 urte, etxeko laguntzailea

Denetik, oraingo "txatarra" musika hori izan ezik. Zarzuela, musika klasikoa, Julio Iglesias, Jorge Negrete, Georgi Dann... Musika alaia gustatzen zait.



BERNARDO CEBRIAN
48 urte, espezialista

Klasikoa, Beethoven eta horiek gehienbat, nahiz eta musika modernoa ere batzuetan gustura entzun. Etxean ez dut musikarik entzuten, gehienbat autoan ibiltzen naizenean.

LASA JATETXEA



.....
OZAETA JAUREGIA
(Bergarako hegoaldeko irteera)

Tel: 76 0 55 BERGARA

EZKONTZETARAKO
JANGELA
ZABAL eta APROPOSA

PARKING PRIBATUA
TERRAZA
eta LORATEGIA

Asic hoRcidko DEGUSTAZIO MENIJA

Numsooren pnteti ollete gibelorekin

Etxello olitirnottiert attliera

Impia qurirt zurium


rIagret-Ilerrela oncicloen salt5arckin

Ezti izozhia ittixdursailstizko cottlis-eRiF
0:1

Ogia, 3 urtelio lilro erdiko ardoti cdo
tir rnirterala, Rafea eta petil rottrs-oli

5.300 pta. + BEZ (7%)
Guzlia etxcan egitia

KALEAN EZ EGIN "KALE"



Ez bota kalean etua botatzen ez duzuna

ELGOIBAR: **GERO ETA GARBIAGO**



ELGOIBARRI



ITEI UF.TITI.1111.1 KOSIUNIFYITL



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

• Bideobijilantzia zakarrentiako deposito alternatiboetan

Deba Beheko Mankomun -tateak kamara bidezko bijilantzia jartzeko asmoa du eskualdean dauden hiru garbiguneetan (Zakarrentzako Deposito Alternatibokak), Eibarren, Elgoibarren eta Mutrikun. Bijilantzia sistema elektronikoa jarri ahal izaCeko dirulaguntza eskatu du Aldundian eta helburua, herritarren gehiegizko erabilera eta erabilera desegokia detektatzea da. Garbiguneen funtzioa obra txikietako egurrak, zakarrak eta bestelakoak jasotzea da. Hau da, hondakinak azkar, eroso eta doan laga nahi dituzten partikularrei zerbitzu bat eskaintzea. Baina, dirudenez, era horretako hondakinak sortzen dituzten profesionalak (igeltseroak, arotzak...) ere erabiltzen dute garbigunea, euren Urruzunoko zaborteia dagoen arren. Sistema berri honen bidez arauak betetzen diren ala ez ikusi nahi du Mankomunitateak.

• ingurugiroaPi buruzko ipuin fehiaketa

Deba Beheko Mankomunitateak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta ESOk lehen mailako haurrei zuzendutako ipuin lehiaketa antolatu du. Ingurugiroari buruzko lanak izan behar dira eta abenduaren 5ean amaitzen da lanak aurkezteko epea. Txapeldunak "El Corte Ingle's"ek emandako Port Aventura saria irabaziko du eta bigarren eta hirugarren sailkatuek mendiko bizikleta bana. Laugarren, bosgarren eta seigarren sailkatuei motxila oparrituko zaie.

Astelehenean hasi ziren trenbidea konpontzen Eibar eta Zumaia artean

Eusko Trenek autobusak jarri ditu obrak diren bitartean

Astelehenean, hilak 17, hasi zituen Eusko Tren Elkarte Publikoak Zumaia eta Azitain bitarteko trenbideko hobekuntza lanak. Izan ere, Eusko Tren elkarte Gipuzkoa eta Bizkaiko trenbide sareko azpiegitura konpontzen ari da azken aldia. Beraz, obrek irauten duten bitartean Eibar eta Zumaia bitarteko bidea egiten duten trenen ordez, autobusak jarri ditu Eusko Trenek. Astelehenetik martxan dago autobus zerbitzu hau. Autobusen ordutegiari buruz infor-

mazioa jaso nahi duenak tren geltokira edo 45 01 31era dei dezake.

Zumaia eta Azitain bitarteko 17 km.ko trenbidearen lanen aurrekontua 788 milioi pta.koa da guztira. Bost astez luzatuko diren hobekuntza lanen artean trenbideko enail zaharren ordez berriak jarriko dira. Trabiasak eta karrilak ere aldatu egingo dira, hormigoizko trabiasak ipiniko dituztelarik eta soldadurazko barradun karrilak. Zumaia eta Eibar arteko trenbide zati honetan 7 tunel berri-

tuko dira, tartean Maltzagako tunela, Karakate mendi azpitik pasatzen dena. Tunelen kasuan, bobadak sendotu eta inpermeabilizatu egingo dira.

Hobekuntza hauei esker, Eusko Trenek zerbitzua hobetu nahi du, trenak abiadura handiago hartuko baitute eta material modemoei esker bidaia erositasuna ere handiago izango da.



Hiru elgohartarrek jaso dute saria Deba Beheko EuskaraKomik lehiaketan

Eibar, Elgoibar eta Ebako Udal Euskara Zerbitzuek antolatutako "EuskaraKomik Lehiaketa"ren sariak nori egokitu zaizkion ezagutzera eman zen astelehenean. Eibarko Portalea Kultur Etxean izan zen sari banaketa ekitaldia. Elgoibarko sarituak hiru izan ziren. A mailan, Maite Uriarteren "Inbadi-tuak baina ez garaituak" komikiak merezi izan zuen lehen saria, 10.000 pta. Bigarren saria, berriz, Ane Garziandia eta Maialen Astigarragak egindako "Oraingo euskara kolokiala"ri eman zitzaion. Bi neskatok hauek 20.000 pta.ko saria jaso zuten. Beste sariturik ere izan da. B mailan,

15.000 pta.ko bigarren saria irabazi zuen David Bilbatuak "Euskararen hiru aurpegiak" izeneko lanarengatik. Kategoria honetan lehen saria ez ematea erabaki zuten Elgoibarko Kokoe Komiki Taldeko epaimahaikoek maila nahi-

korik ez zegoelako.

Guztira 182 lan eta 276 partaide izan dira EuskaraKomik lehiaketan. Sari banaketa ekitaldian Ana Santolaya Udaleko Kutura Saileko batzordeburua izan zen. Argazkian sarituak eta Udaleko ordezkariak.



nagore bengoelxea

HIESaren Prebentzio Astea egiten ari da ErrotaUxo

Errotatxo Elkarteak antolatutako HIESari buruzko Informazio eta Prebentzio Astearen barruan hainbat ekitaldi egin dira astean zehar. Astelehenean, Bilboko HIESaren aurkako T4 elkarteak utzitako kartelen erakusketa ireki zen Gaztetxean. HIESaren kanpaina ezberdinetan erabilitako 44 kartel daude ikusgai. Astearte iluntzean, berriz, Mauri Urturi Bizkaiko Haurren Eskolatze Prozesuko arduradunak hitzaldia eman zuen HIESa duten haurren eskolatze prozesuari buruz. 50 bat lagunen aurrean gogoetarako hainbat argumentu azaldu zituen pediatria bizkaitarrak. Errotatxo antolatutako Prebentzio Astea ekitaldiak igandean amaituko dira HIESarekin hil direnei egingo zaien omenaldiarekin.



Ordu eta erdiko jarduna eguraldiari buruz

Pello Zabala Arantzazuko fraileak eguraldiari buruzko berbeta saio ederra eskaini zuen joan den asteazken iluntzean Kutur Etxeak hitzaldi gelan Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatuta. 55 bat lagun hurreratu ziren aretora, edadetuak gehienak. Lehenengo hiru ordu laurdenak klimatologiari buruzko xehetasunak azaltzen eman zituen Arantzazuko eguraldi gizonak. Gainontzeko ordubetea ikusl egoaren galde-e rantzunetan joan zen.

Berrikuntza Teknologikorako Zentro izendatuko dute IMH

Astelehenean, hilak 24, Erreminta Makinaren Institutuak hitzarmen bat sinatuko du Berrikuntza Teknologikorako Zentroren sarean sartzeko. Izan ere, Lanbide Heziketako Euskal Plan berriaren barruan kokatzen da izendapen hau. Hitzannenaren sinadura ekitaldian Iftaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, Gillermo Garate alkatea, Alberto Ortueta AFMko zuzendaria, Jose Luis Garitano ADEGIFOREko zuzendaria eta Jose Rejo IMHko zuzendaria izango dira. Erreminta Makinaren Institutua kategoria beni hau hanzen duen lehen ikastetxea da Euskal Herrian. Sare honetan maila altuko zentro batzuek baino ez dute sarterik izango, gainerakoentzako erreferente izango dienak.

Argazki lehiaketa Morkaikok antolatuta

Morkaikok hirugarren aldiz antolatu du mendia eta mendizaletasunari buruzko argazki lehiaketa. Mendiari lotutako argazkiak izan behar dira, neurri librean. Partehartzaile bakoitzak gehienez lau argazki aurkez di-tzake eta edozein elgoibartarrek har dezake parte, Morkaikoko bazkidea izan ala ez. Argazkien atzeko aldean non eta noiz ateratakoak diren zehaztu beharko da. Epeari dagokionez, abenduaren 19a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Bildutako argazki guztiakin Kultur Etxean erakusketa egingo da.

Bestalde, federatzeko epea zabalik dagoela jakinarazi nahi diete Morkaikoko zuzendaritzakoek bazkide guztiak. Aurten bi xehetasun kontuan hartu beharko dituzte mendizale guztiak: batetik, eskuan ordaindu beharko dela eta, bestetik, karneta urte hasieran eskuratu nahi dutenek, abenduaren 19rako (egun hori barne) eskatu beharko dutela Morkaikoren egoitza.

Gazteen eta helduen arteko topaketak

Gaur, ostirala, eta datorren asteazkenean, hilak 26, Gazte eta Helduen arteko Topaketak egingo dira Mendaron San Jose Ikastola, Amo Guraso Elkarteak eta Udaletxeak antolatuta. Gazteak eta helduak nola entzun, ulertu eta Ia-gundu landuko dira hitzaldietan. Gaurko hitzaldia gazteei zuzendua izango da eta gaia, "Gazteen jarrera Mendaron". Asteazkenean, berriz, helduentzat zuzenduriko hitzaldia izango da "Helduen jarrera Mendaron" izenburupean. Hitzaldiak Txus Congil dinamizatzaileak emango ditu eta arratsaldeko 8etan hasiko dira Kultur Etxean.

Ipuin Lehiaketa

Mendaroko Udaleko Euskara Batzordeak Gabonetako Euskarazko III. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Deba Beheko ikasleei zuzendua dago. Batetik, OHoko 6. maila eta DBHko 1. eta 2. maila eta bestetik, ertainak. Gaia librea izan behar da, argitaratu gabea eta jatorrizkoa. A kategoriakoen lanak gutxienez 2 orri eta gehienez 4 izan behar dute eta B kategoriakoak 3 eta 6 folio bitartean. Lanak Mendaroko Udaletxera bidali behar dira azaroaren 28a baino lehen. Informazio gehiago 75 61 00 telefonoan.

Herriko zubiak apaintzeko planari ekin dio Udalak

• Garbiketa planaren zerbitzu zuzena berritarrentiat

Joan den astean eman genuen Deba Beheko Mankomunitateak hazi berri duen "Elgoibar garbiago baten alde" kanpainaren berri. Herriarrak inplikatu eta kontzientziaztea da aipatu kanpainaren helburua eta garbiketa zerbitzua hobetzea. Elgoibarren martxan dagoen plan piloto honek sei hilabeteko iraupena izango du eta ekintza desberdinak egingo dira. Horien artean dago herritarrentzako harreta zerbitzu zuzena. Nahi duten guztiek kanpainari buruzko iritzi, keza, aholku eta zalantzak zuzenean eman edo jaso ahal izango dituzte zeregin horretarako jarriko den bulegoan. Kanpainaren koordinatzailea ostegunetan, arratsaldeko 16.00etatik 18.00etara Udaletxean egongo da, (Udaltzaingotik sartuz). Printzipioz ordu-tegi hori izango duen arren, jendearen artean zerbitzuak duen harrera ikusita, litekeena da ordutegia zabaltzea.

King-Kong-eko zubian 300 kiloko eskultura jarriko da

King-Kong-eko zuba 300 kiloko pisua duen eskultura batez apaindua agertuko da 1998 urte hasieran. Aipatu eskultura mitologiako pertsonaia den learoren erreproduktzioa da, tanudnu naturalean egina. Esperanza D'Ors artista madrildarrak King-Kong zubirako espreski egin du artelana eta Easko Jaurlaritzako Garrantiaio eta Obra Publikoen sailak eskaini du.



Itxura hau edukiko du zubiak eskultura jarri eta gero.

Jakin ahal izan dugunez, Udalaren asmoa Elgoibarren dauden zubiak apaintzea da eta lehenengo pausoa urtea amaitu aurretik emango da. Izan ere, Txankakua zubiari ukitu berezia eman nahi zaio eta horretarako argi apain-

garriak jarriko dira itxura ederragotzeko. **Diseinu** ikusgarria duten farolak jarriko dira, zuba edertzeaz gain, inguru guztia are gehiago argituko dutelarik. Gillermo Garate alkatearen hitzetan, "zubiak gure herriko ezaugarriak dira, bertoko bizitzaren adierazga-

ri. Horregatik, horiek erabili nahi ditugu Elgoibar ederragotzeko, estetikoki erakargarriagoa egiteko. Santa Klarako obrak egin zirenean ekin genion Elgoibar itxura aldetik ederragotzeari eta bide beretik jarraitu nahi dugu plan berri honekin".

Euskara Batzordearen martxa motela salatu du HBk

HBko Pello Mendizabalek prentsaurrekoan adierazi zuenez, PNVren eskuetan dagoen Euskara Batzordea ez da uztailetik bildu. "Epe horretan gai asko zintzilik geratu dira. "Esaterako, 'Ahoz aboz...' transnaisio kanpainaren jarraipenik ez da egin, eta badakigu gurasoentzako ikastaroetan hiru lagun baino ez zirela apuntatu". Euskaltegien elkarlanerako proiektua maiatzean aurkeztu zela azaldu zuen Mendizabalek "eta oraindik ez da gai honen inguruko erabakirik hartu. Bestetik, AEKrentzako beka sistema onartuta badago ere, oraindik ez

dakite noiz jasoko duten dirua". Trebatzailearen figura onartu zenetik martxan jairi orduko ere urte eta erdi pasatu dela gaineratu zuen HBkideak. "Gotzon Arrieta Euskara batzordeburuaren dimisioa ezin da aitzakia izan batzordearen funtzionamendu kaxkarra justifikatzeko. Legealdiko bi urte pasa dira eta batzordeak beti izan du dinamika oso motela. PNVk batzordearen arduratu du eta ezin du noraezean laga. Euskarak ez du PNVrentzat garrantzirik. Ez badira Euskara Batzordea antolatzeke gai utz dezatela ardura beste alderdien esku".




ASESORIA ETA CONSULTING

- Kontabilitatea - Lana Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK

lbaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel. 74 08 91 - ELGOIBAR

POL-POL

A B E R N A

San Bartolome, 19 Tel. 74 08 74 -ELGOIBAR

Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 38. GEHIGARRIA



Pilar ikastetxeko DBHko 2. mailakoek egindako azken irteera Bartzelonara izan zen. Egun ederra pasa zuten, bistan denez.

Argazkian, Zientzia Museora egin zuten bisitan atsedenaldia hartzen ikus

ditzakegu. Museoan oso gusturo ibili ziren, besteak beste, tresnak eskuartean ibili baitzituzten, frogak eta esperimenduak eginez. Zientzia munduarekin topaketa interesgarria izan zen ikasie talde honek Bartzelonan izan zuena.

7xe:ttea

Baserriko emakume bat haserre bizian doa maisuarengana protestatzera:

- Aizu, Julenek ez ditu txerriak zaindu nahi.
- Eta zergatik zatoz kontu horrekin nigana?— esaten dio maisuak harrituta.
- Zeuk erakutsi diozulako esaera zahar bat: `Noren laguna, halako nortasuna`.



Jakitunen eskutik

Hepatitis birikoa

J. F. NUÑEZ

MENDAROKO OSPITALEKO PEDIATR1A ZENTROKOA

Hepatitis munduan zabalkunde handia duen gaixotasuna da (batez beste 280 milioi pertsona dira Hepatitis B birusaren eramaileak), sintoma klasikoak dituena (ikterizia, ondoeza...) eta, batzuetan, jarraibide konkretuekin Lotzen dena.

Hona hemen zenbait argibide:

Hepatitis gibeleda ehunaren handitzea da, kronikoa edo larria izan daitekeena.

Larria; Hepatitis larria dela esaten da denbora jakin bat pasatakoan inflamazioa desagertu egiten denean, klinikoa normalizatu eta birusa organismotik desagertzen denean.

Kronikoa: Kasu honetan organismoak eta tratamenduek ezin izaten dute birusa kanporatu.

Bi kontzeptu hauekin batera eramaile izan arren osasuntsua den pertsonaren kasua dago. Hau da, gaixorik egon den pertsona batengan inflamazioa desagertu eta klinikoki ondo dagoen arren, organismoak ezin izaten du birusa kanporatu, beraz, birusak odolean jarraitzen du eta kutsagarria da.

Hepatitis hainbat substantzia eta agente bizidunek sor dezakete baina badira zenbait birus gibelarekin kideotasun berezia dutenak. Horiek izendatzeko opezdarioko letrak erabiltzen ditugu: A, B, C, D, E,...

Hepatitis A: Haurren artean sarri agertzen da. Birus hau ahotik organismora eta hemendik zelula hepatikoetara sartzen da eta normalean sintomatologia apda izan ohi du, apenas igartzen dena (ikterizia,

sukarra, ondoeza...). Epe laburrera desagertu egiten da eta inmunitatea (defentsak) tinko lagatzen du betiko.

Hepatitis B: Birusa injekzio, transfusio, harreman sexual, edo emakumea birusaren eramailea denean plazenta edo erditzeetan kutsatzen da. Oso kutsokorra da eta gibelaren handitzea eta aurretik esan ditugun sintomak sortzen ditu. Hepatitis mota honek bilakaera desberdina izan dezake. Gerta daiteke larria izatea eta organismoak birusa kanporatzea. Batzuetan hepatitis kronikoa bihurtzen da eta hirugarrenik gerta daiteke, baita ere, eramailea osasuntsua izatea.

Hepatitis C; Hepatitis B deitzen denaren oso antzekoa izan arren kronikoagoa da eta ez dago txertorik prebenitzeko.

Hepatitis birikoez ez dute tratamendu farmakologikorik, beraz, prebentzioa landu behar da: eskuak eta elikagaiak garbitu behar dira Hepatitis Aren kasuan. Hepatitis B eta C kasuetan xiringa kutsatuert erabilera eta pertsona eramaileekin harreman sexualak izatea ebitatu behar da.

Profilaxiak:

- Inmunoglobulinak oso eraginkorrak dira kutsadura gertatu eta berehala ematen badira.


- Txertoak: Hepatitis A kasuan txertoa hartzea komeni da zona endemikoetara bidaiatu behar den kasuetan.

Hepatitis B kasurako badago txerto oso ona arrisku taldeetan daudenei ematen zaiena (ama eramaileen jaioberriei, 13 urteko gazteei, eramaileekin bizi diren umei...). Etorkizun hurbil batean jaio berri guztiei hepatitisaren aurkako txertoa jartzea posible izango da. Ez dago txertorik Hepatitis C kasurako.

Zer iritzi daukazu towtas-drxia ri buruz?



Neibeila4x Tam,a~, alkokata t.e/344.

Act,  /4ja.

Pipm.(44 txa UccoAU /ta,.

LEIRE AGEA, 10 urte



T~.~ t-41, /A,Wu t-6/i44 A>rc e/A,

e"al,e/K €4,0

4.

LAURA ODRIOZOLA, 8 urte.



rvthu 3000 ScG. racti.ako? Eacik kt4-3406//ie" ytam,

4.4 /,tdx. te4a. E/a, /e444.11.41, ta

Et.

HARITZ ARRIETA, 12 urte



JOIS ZALDUA
13 urte

Ga de debalde

- TBko zein programa ikusten duzu?
- Zein abestirekin hartuko zenuke parte karaokean?
Ba al daukazu Tamagotxirik?
- Zinera eramateko txutxerriaren bat?
- Eskulan bat?
- Nori eskatuko zenioke zure neska-/mutill-laguna atea?
- Sekula saiatu al zara zeruko izarrak kontatzen?
- Fruta bat?



A.M.A1.4
13AGLIETO
urte

- 1- Goenkale,
- 2- Bittor Aieperen batekin.
- 3- Bai, baina ez jata gustatzen,
- 4- Ez dute lagatzen baina txupatxusak eta txikiak eruaten ditxut ezkutuan.
- 5- Teknologikuak.
- 6- Claudia Schifer-i.
- 7- Bai, baina ezinezkoa da.
- 8- Mandarina.

- 1 Etxe Kaltetxoak, marrazki bizidunak,
- 2- "Eba Mirentxu"rekin.
- 3- Ez, baina erosiko diate.
- 4- Donuts-ak.
- 5- Guztixak!
- 6- Inori ez!
- 7- Ez.
- 8- Mailukixak.

Nor da

eee₁₂ ?

IBUNE MALTSHI 7 9 III.VI4



Beltzez jantzita agertzen den gizon bat, apaiza balitz bezala.

CUISTINA CONLI 9 I.JEAL



Aita Apeles oso famatua da eta diru asko daukala pentsatzen dut.

CAIZKA TIDISDALI 12 ULTE



Apeles apaiza da eta iskanbiletan sartuta dago beti.

II3AN MCLALES 12 urte



Apaizaren papera betetzen du baina ez da ez apaiza ez ezer.

AL-SUEL LIZAMALDIE 7 urte



San Pedroko apaiza da.


ISAAK DILISATUA 7 urte



Espainiako erregea da.

Denborapasak: ezetz asrnatu!

1. Nor da pertsonaia hau?



2. Zer galdetu diegu?



LEIRE VAZQUEZ
6 urte

"Ez, dana amak eitxen dia. Neri gustauko jatan txokolatezko tartia eitxia. Arraultzak, irina eta azukria hartu eta jolasian ibiltzia. 8 urtekin lagako dia amak sukaldian ibiltzen".

MIKEL ETXANIZ
11 URTE

"Bai, okelia eta frituak frijitzten, patata tortilia eitxen... Gehixen espagetixak eitxia gustatzen jata. Nik esan nion amari erakusteko eta egunen batian etxetik juten naizenian jakingo dot".



3. Nizki-zopa

FRU ITUAK

MAHATSA

MADARIA

BANANA

IVIAIRRUE_{3/A}

INTXAURRA

T X P I T O L A E
G O L D E M G R N J N
R G A T A N A B
E T R O H N T N s M
M E L O K A T O A A
P A T A T X E B I R
M I D O L A T A R
G A L A G A U T A I
B E K O R E R L O J B
M N T X R U R R I
T X O K O L A T E P A
P I N P I L I N P A

4. Asmakizunak

- Mendian jaio mendian hazi sukaldera etorri eta dantzan hasi.

— Igoko luke arbolarik handiena eta ezin pasa errekarik txikiena.

— Mairidire bat, harizkoa ez, dena estaltzen du eta ura ez.

Perkusio ikasketak egin zituen. Andoain, Eibar eta Elgoibarko musikeskoletan musika irakaslea da. Elgoibarko Bandan jotzen du eta Euskadiko Gazteen Orkestako ordezkaria da. Gorka Mujikak 24 urte besterik ez ditu baina esperientzia handia dauka musika munduan. Besteak heste, Jose Luis Morenoren programetan parte hartu izan du eta gaur egun Inazio Bereziartua Musikeskolako Gazteen Bandako zuzendaria da. Bihar, larunbata, Santa Zetilia ospatzen da, musikoen eguna eta guk ere nolabaiteko omenaldia egin nahi izan diegu musikari guztiei lerro hauen bidez.

GORKA MUJIKAK

"Gaztien Bandan jendiak disfrutatzea nahi dot"

— Kasualitatez al zaude perkusioaren munduan?

Hasiera batian kasualdadia izan zala esan leike baina gero gustura hartu naban eta 7. mailan nauaia hasi nitzan Donostiko konserbatorixuan. Oin dala 3 urte amaitxu nitxun ikasketak. Halere, maila ertaina lortu nabarian hasi nitzan lanian eta bitxartian goi mailako ikasketak ein nitxun, Donostiko orkestan ere hasi nitzan jotzen...

— Halere, profesionalki zer duzu nahiago: jotzea ala irakastea?

Bixak. Irakastia guslatzen jata eta orkesta haundixetan jotzia gozada bat da. Baina ez daoz aukera asko, ze ez daude plaza asko, jende dexente dao, asko exigitzen dabe... Halere, perkusiva berandu sartu zan Euskal Herrian. Oin dala 25 urte tanborra eta tinbalak bakarrik ezagutzen zian eta

gero hasi zian beste danak sartzen. Oin jende gehixio eta hobia dao.

- Aurten hartu duzu Elgoibarko Gazteen Bandako zuzendaritza.

Bai, aukeria euki eta gustura hartu naban. Momentu honetan 30 lagun ingum daude bandan eta ez da erreza izaten danak elkartzia, ze jende danak dakaz beste mila gauza. Media bezela 13-14 urteko jendia dao baina badaude 12 urtekuak eta 19kuak ere. Ostegunetan juntatzen gera entsaiatzeko.

— Zuk aukeratzen al duzu zein pieza jo?

Bai, baina ikasleri ere galdetzen diuet. Nik nahi dotena da gustura etortzia. Telebistan edo zinian entzuten ditxuen abestixak nahi badebe, hori jotzen dou. Ez dot nahi obligaziva dakelako etortzia, gustatzen jakuelako eta disfrutau eitxen dabelako baizik. Ikastia baina

gustora, motibauta.

— Zer moduz ikusten duzu zure burua zuzendari moduan?

- Lehen ere perkusio taldia zuzendu izan dot baina hainbeste jende sekula. Egixa da nik ere ondiok asko ikasi bihar dotela baina hasteko behintzat oso gustura nao.

— Gaur, ostirala, zure lehort kontzertua izango da.

Gaztien Orkestako zuzendari bezela bai, baina ez nao batere nerbioso. Jende aurrian askotan azaldu izan naiz jotzen eta gauzak ondo preparauta badakazu seguro zuaz, ez dao problemarikan. Argi dakat in bihar dotena.

— Orkesta eta Banda desberdinetako kide izateak ematen al du esperientziarik?

- Bai, Donostiako Bandan eta Orkestan egon izan naiz eta Elgoibarko bandan 12 urte nitxuanetik nao. Betti fijatzen zera asko zuzendarixetan eta asko ikasten da. Donostin direktore osoo ona euki naban eta oin ere asko egoten naiz Euskadiko Orkestako zuzendari suplentia danakin.

— Eta zer behar du zuzendari on batek?

- 60 pertsona dominau bihar ditxu eta ez da erretza. Belarrixa euki bihar da, denbora guztixan adi egon, jendiakin ere harreman pertsonal onak eukitzia inportantia da... Gauza asko daude.


— Erosi duzun azken konpaktoa?

Tronpetista batena eta Scott Joplin, "El golpe" pelikulako musikia ein zaban bizitzako obrarik onak. Dana dala, saiatzen naiz musika dendetan gutxi sartzen ze bestela tentaziva haundiegixa izaten da.

EESTEK ESANA

"Txikitatik musikarako gaitasun berezia izan duen langile aparta da"

MARI JOSE ZUBIAURRE, Musikeskolako idazkaria



adit_W



AmpaiAO

BlaVICO

23 urterekin kazetaritza amaitu berri, maletak egin eta Madrilera joan zen. "Euskal Herrian ez nuen kazetari lanik topatzeko ahaleginik egin oso zaila zela iruditzen zitaidalako. Madrilera joatea gehiegi pentsatu gabeko erabakia izan zen".

Amparok zorte handia izan duela esan digu. "Hasieran gogorra da. Negar asko egin nuen. Ez duzu inor ezagutzen eta atzean utzi duzunaz ohartzen zara: lagunak, etxea,... zure sustraiak, alegia". Egun erdiko lantxo bat topatu zuen "Arte fotogrffico" aldizkarian. "Hala ere, elkarrizketa mordo batera joaten jarraitu nuen: Canal Plus, Tele5,... baina mundu hari nolakoa den ikusita desilusionatu egin nintzen".

Mobil Oil-en idazkari bezala hasi zen. Egun batean, igogailu batean zihuala, multinazional bateko gerenteak bere idazkaria izateko proposatu zion. 6 urte daramatza lan honetan benetan gustura. "Ez naiz damutzen kazetaritza baztertu izanagatik, irratia ez ezagutzeak ematen dit pena".

Huelvako mutil batekin dago ezkondu. "Madrilen ia denak gara kanpotarrak eta uste baina errazago egin nituen lagunak. Gainera, hemen bizi diren Elgoibarko eta ingurukoak kontaktuan gaude".

Hilero edo Elgoibarrera etortzen da, eta astean hirutan telefonoz hitz egiten du etxekoekin. Haiengandik daki hemen gertatzen dena. "Elgoibarrera joaten naizenean nire etxera noala esaten dut, hura izango baita beti nire etxea".

4111
Wifer O.DA.
BILBRO EXPCESS

bidai agentziak
babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

Angeles Etxabe Agirre

(1918-1995)



- 1918ko martxoaren leian jaio zen San Frantzisko kalean. Hiru anai-arreba ziren, bera bigarrena. Seme gazteena, Justo, gerratean soldaduzkara joanda Gasteizen hil zen 18 urterekin.
- Ikasle ugari zituen Magdalenako Amabirjina Milagrosaren eskolan egin zituen ikasketak 14 urtera arte Sor Ana moja ezagunarekin.
- Angelesen amak josteko makina zuen eta galterdiak eta eskularruak josten ikasi zuen. Eskola bukatuta, adin guztietako pertsonentzako jertseak josten ikasi zuen eta harizko soinekoak eta bestelako jantziak ere egiten zituen. Angelesek aparte-ko esku ona zuen zeregin hauetan. Bere ahizpa Justa izan zuen maistra, esku trebekoa hau ere.
- "Ultrainarinos Etxabe" denda ireki zuen familiarak, gaur egun "Idarraga Kafeak" dagoen lekalean. Aita famatua zen trokelak eta eskopeten basculak egiten. Prestamista modura ere Gipuzkoako eta Bizkaiko herri askotan ibilitakoa zen.
- Familia guztiak urte asko egin zituen lanean bi lanbide hauetan. Angelesek salmenta ugari egin zituen arropa eta hari kontuetan. Berak egindako arropak oso estimatuak ziren herriko zein erbeste-ko bezeroen artean, Donostian eta Eibarren batez ere.
- Bizitza osoan ondo moldatu zen Angelesen familia.
- Sinesmen handiko emakumea zen eta asko gustatzen zitzaion Magdalenako Amabirjinari bederatzigarrena egitea. Emakume hiztuna. atsegina eta alai zen.
- Eibarko Luis Urzelairekin ezkondu zen bertara. Seme bat eta alaba bat izan zituzten.
- Boltsoak eta bizikletetako jarlekuak egiteko tailerra izan zuten Eibarren.
- Sarritan etortzen zen Elgoibarrera hisitan. Bere zaletasunik handiena erropak ziren.
- 1995ean hil zen Eibarren 77 urterekin.

Juanito Gorostiza

1.1"

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

9/ (943) 20 35 15
ABERIAK (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa)
● 20600 EIBAR

21111 ANCHUSTEGUI sa
ZERAMIKAK

Erakusketa eta butegoa: Antonto Arrillaga, 6-8 behea 83 Poslakutxa Tel: 74 33 44 - 74 06 92 Faxa: 74 37 11	Biltegia: Arregitorre, 10 - 14 behea Tel. 74 20 38 - 74 23 71 20870 - ELGOIBAR Gipuzkoa
---	---

ZENTRO
PSIKIMEDIKOA

Gida eta arma baimenerako azterketak

Goizez: 10:00-13:00
Arratsaldez: 15:00- 17:00
Ostiral arratsaldetan itxita

Larunbatak:
11:00etatik
13:00etara

Ariketxa Zubia, 1 behea (Unzeta terreteria zena) Tel./Faxa: 20 05 01 EIBAR



A

ste honetako erretratua Santa Zezilla dela eta, argitaratzea erabaki dugu. Udalaren Musika Bandak utzitakoa da. San Anton egun batean aterata dago, 1913ko urtanilaren 17an. Musika Bandakoak Udaletxe alboan daude, frontoiaren atzean, gaur egun Giza Eskubideen plaza dena. Eskuma aldean dagoen atea Udaletxera sartzeko da. Gaur egun ate hori oraindik mantentzen da.

Bandako musikoak denak daude hilda, horregatik ez dugu gurutzerik ipini.

Ezkerretik hasita, atzeko ilaran: Marcial Iturrioz "Tri-pas", Laureano Ansola "Txanbolin" (zuzendariordea), Ignacio Iriondo "Iñaxixo", Ildefonso Opakua, Angel Gisasola "Maletero", Federico Sodupe eta Silvestre Ziaran.

Bigarren ilaran: Justo Ajuria, Gumersindo Ansola, Benigno Opakua, Galo Iriondo, Ignacio Bereziartua (zuzendaria), Dionisio Sodupe, Roman Gisasola "Maletero", Atanasio Ziaran eta Guillermo Barrenetxea "Trastorno".

Hirugarren ilaran: Guillermo Armendia, Canuto Gabilondo, Valentin Ezenarro "Koipia", Gerardo Arriola eta Victor Gisasola "Maletero".

Aurrean: Valentin Ansola "Kartero" eta Evaristo Izeta.



Julian Etxebarria

1997ko azaroaren 14an hil zen
58 urte zituela.

Oraindik orain joan zaigun

JULIAN ETXEBERRIA ZUBIA URRE jaunaren

alargun eta seme-alabei dolumina adieraziz,

beraien saminean lagun gaituztela

azaldu nahi diegu.

Har dezala atsedena.

Pikupek • langileak

• Joseba Etxeberriak selokzioarekin debutatu du

Joseba Etxeberria Athletic-eko jokalaririk elgoibartarrak, asteazkenean, hilak 12, Espainiako selekzioarekin estreinakoz jokatu zuen. Mallorcan izan zen Errumanian aurkako partiduan Joseba selekzio espainarreko onena izan zen. Izan ere, berak sartu zuen gola.

• Behobiako sailkapena osatzen

Fortuna Klubak B eho-bia-Donostian parte hartu zuten elgoibartarren zerrenda osoa bidali ez zigunez, hona hemen parte-hartzaile batek bidalitako beste hiru elgoibartarren denborak:

- Jesus Mari Makazaga
1:22:20
Irusta Ayerza
1:58:43
- Alexander Sasiain
2:04:05

Aldai eibartarra, Harakatera igoeran irabazle

Fernandezen errekorretik 17 segundora geratu zen

Joan den zapatuan jokatu zen Karakatera IV igoeran Juan Aldai eibartarra izan zen lehen korrikalaria. Ibilbideko zatirik gehiena bakarrik egin bazuen ere, denborarik onena egiteko gai izan zen, 29'59", iazko errekorra baino 17 segundo gehiago.

Jose Mari Fernandez Suso indarririk gabe geratu zen Karakateko malde-tan. Aurreko asteko entrenamenduetan oso fin ibili bazen ere, duela hilabete batzuk izan zuen lesioak agian izan du zerikusirik. Datorren

urtean, beharbada, bere esku dagoen errekorra hobetu ahal izango dute bai berak bai Aldai eibartarrak. Dena den, eta eguraldia apartekoa izan bazen ere, korrikalariak lur jota iritsi ziren ikusle beteta zegoen mendi tontorrera. Aldai berak aitortu zuenez, "indarririk gabe iritsi naiz gora". Gainerako partehartzaileek ere ikaragarritzko esfortzua egin zuten lasterketa amaitzeko. Emakumezkoetan Pilar Arriola izan zen partaide bakarra. Bigarren urtez hartzen du parte elgoibartar gazte honek eta benetan pozik amaitu zuen lasterketa, "izan

ere, nire marka bi minututan hobetu dut.". Pilarrek bezala, Antonio Fernandez elgoibartar beteranoak ere, iazko marka hobetzea lortu zuen.

Aipatzekoa da parte hartu zuten 11 korrikalarien artetik, lau kanpotarrak zirela.

SAILKAPENA

- 1- Juan Aldai
29'59" (Eibar)
- 2- J. M. Fernandez
32'13" (Elgoibar)
- 3- Unai Bengoa
32'39" (Eibar)
- 4- J. Antonio Agote
35'05" (Elgoibar)
- 5- Andoni Calles
35'25" (Soraluze)
- 6- Juan Antonio Ruiz
39'15" (Elgoibar)
- 7- Pilar Arriola
39'30" (Elgoibar)
- 8- Javier Fernthidez
40'22" (Elgoibar)
- 9- Francisco Frias
43'36" (Elgoibar)
- 10- Antonio Fernandez
45'22" (Elgoibar)
- 11- Iñaki Zubillaga
46'48" (Azpeitia)



Sari banaketa ostean argazkia atera genien II partehartzaileei.

ESKOILARTEKO KIROLAK

EMAITZAK Azaroak 15 2. 'ardunaldia

ARETO FUTBOLA

- Benjamin mutilak ■
Pilar A 1 - Urasandi 5
Ikas Bulls 6 - Pilar B 0
Mendaro A 4- **Ikas Bihurri 0**
Ikas Gorri 0 - Ikas Tximista 8
- Benjamin neskek •
Pilar A 0 Ikas Ortazar 4
Ikas Belek 5- Pilar B 0
Ikas Hartz 0- Ikas Bizkor 0

SASHIBALOA

- Alebin mutilak ■
Mendaro B 4- Ikas Gol 22
Ikas Spabidubi 0- Pilar B 22
Ikas Inpernu 2- Urasandi 18

ESKUBA10111

- infantil mutilak S
Ikas Bolita 15 - Pilar A 3
Basati 10 - Ikas Axelko 17
- Intantil neskek C7
Ikas Gorri 30 - Ikas Spanky 4

AGENDA Azaroak 22 larunbata

ABETO FUTBOLA

- ffi Benj. mut. (Herri Eskolan) •
10:30 **Pilar Bulls Ikas Bulls**
11:00 Ikas Bihurri - Herri Otsokoak
12:00 **Ikas Gorri - Pilar Lakasitos**
12:30 Ikas Tximista - **Mendaro A**
- Benj. nesk. (Herri Eskolan) I
9:30 **Pilar Usoak** - Ikas Bizkor
10:00 Ikas Hartz - Ikas Ortazar
11:30 Pilar Txiki - Ikas Baleak

SASKIBALOA

- Alebin mutilak (Ikastolan) •
10:30 Ikas **Spabidubi - Pilar Flash**
11:15 Ikas Gol Ikas Inpernu
12:00 Herri Boomerang
Pilar All Star

- Alebin neskek (Urasanditi) mi
10:30 Ikas Trumoi - Ikas Planet
11:15 **Ikas Txingor Pilar Girls**
12:00 **Herri Argi Pilar Kas**

ESIWBALOA

- Intantil mutilak (kiroldegian) ffi
10:30 Pilar Boys Ikas Otsoko
11:15 **Basati - Pilar Ajax**
12:00 **Ikas Axelko - Perraubekuak**
- Itardil neskek (Kiroldegian) ffi
9:00 Ikas Trons - Pilar Mix
9:45 Blablatarrak Ikas **Gorribeltz**

Elgoibarko Eskubaloi Elkarte

Eskubaloiko bost taldeek urrian hasi zuten liga

Urriaren lehenengo astean hasi zuten liga Elgoibarko eskubaloi taldeek. Dagoeneko laupabost jardunaldi pasatu dira eta hurrengo norgehiagoka asteburuan izango da. Jubenil eta kadete mailako mutilen bi taldeak Euskal Ligan daude aurten eta nesken kadete eta jubenil kategorietan, berriz, aurten igoera lortzeko asmotan dabiltza. Seniorrek, berriz, territorial kategoriako lehen mailan jokatzen dute. Hona hemen talde guztiak.



PNEUMAX (kadete mutilak). Atzean, hiaki Ovejero, David Bilbatua, Jose Perea, Joseba Sagasta, Egoitz Mora, Goiatz Leibar, Aitor Dorado eta Oier Konde. Makurtuta: Aitor Rosario, David Martin, Juanjo Martin, Josu Motriko, Eduardo Etxeberría, Jon Larraílaga eta Ibon García. Jose Hidalgo entrenatzailea falta da.



UNCETA (kadete neskak). Atzean, Erika Etxabe, Maite Arenal, Anahi de la Cruz, Sare Gurrutxaga, Julia Fernandez, Ane Garmendia, Oihana Apellaniz, Itziar Gerrikabeitia eta Igor Lizarralde (entrenatzailea). Makurtuta, Begoña Merino, Izaskun Sarriugarte, Andrea Iriondo, Ainhoa Gonzalez, Estitxu Astigarra, Lur Izagirre eta Amaia Leiaristi.



TECNOMECA (jubenil mutilak). Atzean, Patxi Aranberri (entrenatzailea), Josu Perea, Iker Astigarra, Beñat Leiba, Julen Hernandez eta Josu Iriondo. Makurtuta, Jon Aierdi, Xabier Uribeberria, Kepa Mendikute, Jonathan Martin eta Oier Uriarte.



PAGOAGA (jubenil neskak). Atzean, Lore Agirrezaldegi, Ivana Loliola, Ainhoa Lendinez, Ainhoa Torres, Arianne Peñaranda, Ainhoa Aduriz, Silvia Vazquez, Miren Beitia, Leire Agirrebeña eta Alex Arrieta (entrenatzailea). Makurtuta, Amaia Jauregi, Idoia Oiarzabal, Irati Uriguen, Lorea Gabilondo, Ane Agirregomezkorta, Irma Aldazabal, Patricia Fernandez, Vanesa Gonzatez eta Leire Dieguez.



SENIORRAK. Atzean, Javier Ulibarri (ordezkaria), Ion Ulibarri, Aitzol. Garmendia, Ibai Gurrutxaga, Zigor Esnaola, Oier Gurrutxaga eta Erkuden Idiakez (entrenatzailea). Makurtuta, Aitor Garate, Ion Gurrutxaga, Xabi Zelaia, Eduardo Fidalgo, Eneko Kortaberria, Jon Zubiaurre eta Gorka Muruarnendi.

eftilAITZAK

Futbola

Amurrio 0 - Haundi 2
 Elgoibar 1 - Aurrera 1 (2. erreg.)
 Gazteak 1 - Pedrusko 6 (2. erreg.)
 Elgoibar 2 - Alaves 0 (Oho. jub.)
 Elgoibar 1 - Almen 2 (1. jub.)
 San Ignacio 1 - Elgoibar 3 (Kad.)
 Arrasate 1 - Elgoibar 3 (In.)
 Elgoibar 1 - Eibartarrak 6 (Neskak).

Eskubaloia

Unceta Elg. 43 - Zestoa 0 (Kad. nes.)
 PneumaxElg.17-Trapagaran 19 (Kad. mut.)
 Pagoaga Elg. 29 - Leizaran 10 (Jub. nes.)
 Tecnonneca Elg. 31 - Trapagaran 25 (Jub. mut.)
 Elgoibar 20 - Hernani 25 (Seniorrak)

Areto futbola

Extremeño 5 - Elgoibar 1 (1. maila)
 Nogales 4 - Elgoibar 4 (Auton.)

il letiDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 22
 12:00 Elgoibar - Antoniano (Kad.)
 17:00 Haundi - Bermeo

Areto futbola, Kiroidegian

Ostirala, 21
 22:10 Elgoibar - Pas, Adarra (1. maila)
 23:10 Elgoibar - Astilleru (Auton.)

Futbitoa, Kuoldealan

Igandea, 23
 9:00 Zelai F.T. - Sanrokotarrak
 10:00 Elkarte Autoak - Trans Video
 11:00 P.S.K. - Menisco
 12:00 Herminios - S. Pitxote

Eskubaloia, Kiroldealan

Larunbata, 22
 17:00 Unceta Elg. - Leizaran (Kad. nes.)

Eskolarteko atletismoa, Mintxetan

Larunbata, 22
 10:00 Atletismoa (Ale. eta inf.)


Saskibaloia, Kiroldagian

Larunbata, 22
 19:00 Elgoibar S.T. - Mundarroz

49 euskal argazkillariren erakusketa abenduaren 13ra arte

Benito Lertxundi, Gari, Txillida etab.en erretratuak ikus daitezke

Gaur, ostirala, hilak 21, hasi eta abenduaren 13ra bitartean, Ongarri Argazki Kolektiboak bildutako euskal argazkilari profesional eta amateurren lanik bikainenak ikusgai egongo dira Kultur Etxean. "Aurrez aurre" izena daraman erakusketan parte hartzen duten argazkilariak lan ezberdinetan jarduten dute: moda, publizitatea, galeria komertzialak, "free-lance" modura edo bere kasa dabiltzanak, etab.



Erakusketako manipulaturako argazkia.

Pertsonaia ezagunak

Erretraturako pertsonaien artean, badira oso ezagunak direnak. Abeslariak, esaterako: Benito Lertxundi, Anton Reixa, Txetxu Bengoetxea eta Fran Lasuen. Beste asko, berriz, ezezagunak dira: altzairutegietako langile bat, ijitoak, etab. Argazkien aukeraketa egileen esku egon da. Gogokoen zutena aukeratu dute gehienek, eta batzuek erakusketarako apropos egin dute.

Teknikari dagokionean, manipulaturako polaroid-ak, koloretzatutako argazkiak, etab. daude. Tartean bi metroko argazkirik ere bai.

Ongarriko Jesus Mari Sarasuaren esanetan, proiektu honen oinarritzko ideia "euskal argazkilaritzaren momentu ona erakustea da". Autore batzuek izen handia dute erbestean: Ouka Lele, Alhertso Schommer, Carlos CzInovas... Hauen artean autore gazteagoak ere badaude, "erakusketa honetan egoteko moduko merezimendua baitute". Honez gain, argazkilaritzan aitzindari izan diren argazkilari batzuek ere gogora ekarri nahi dituzte Ongarrikoek erakusketa honen bitartez: Sigfrido Koch (1992an hildakoa) edo Egiguren anaiak (gaur egun publizitatean dabiltzanak) esaterako.

Sarasuak azaldu digunez, "argazkiek ezagun oso ezberdinak badituzte ere, bada zer-bait amankomunean dutena: argazkien egile guztiak hainbat urte daramatzatela argazkilaritzan lanean. Gainera, aniztasun honek aurrerago bigarren zati bat prestatzeko aukera ematen digu, argazkilari gazteekin osatuz. Erakusketa honen osagarri aproposa litzateke".

Aitor Larrea zenaren omenezko kontzertua emango du Musika Bandak

Udalaren Musika Bandak Santa Zezilia ospatuko du asteburuan. Zapatuan, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan meza izango da parroldan Aitor Larrea zenaren omenez. Bertan Udalaren Musika Bandak eta Parroki Abesbatzak hartuko dute parte. Mezaren ostean kalejira izango da Musika Bandaren eskutik.

Igandean, goizeko 11:00etan kalejira izango da eta eguerdiko 12:30ean Larrearen omenezko kontzertu berezia hasiko da. Bost piezaz osatutako egitarua prestatu dute eta lau estreinakoz joko dituzte. Jose Antonio Osorok zuzenduta honako obra hauek entzun ahal izango dira: J. Francoren "Lekunbeti" (estrenoa), Beethovenen "Egmont" obertura, Rio Bravo pelikulako "Degliello" (estrenoa),

"Chorale for trombone" (estrenoa) eta Sorozabalen "Los burladores" preludea (estrenoa). Azken aurreko pieza, tronboiarentzako "solo" bat da, Juan Manuel Saezek joko duena. Pieza hau Aitor Larrea zenaz pentsatuta aukeratu dute, berak tronboia jotzen baitzuen.

Kontzertuaren ondoren Bandako kideek bazkaria izango dute Karakate Elkartearen.



Aitor Larreak tronboia jotzen zuen Bandan.

2L

Whisper XL

Musikaz jarduten duten artikuluak idaztean, norberaren kriterioa isladatzeko tendentzia edukitzea ukazina da. Gizaki guztiok dugun berezitasun bat desberdintasunean oinarritzen da. Gizakion heziketari belarriaren heziketa gehitu behar zaio, norberaren kolore hautaketa oinarritzat hartzen duguiarik. Atal honetan talde arraroe-giak/ezezagunegiak ateratzen ditugula aurpegiaratu digute, zergatik ote? Denok eza gutzen ditugun taldeez hitz egitea zentzugabekeria litzatekeelako.

Erosoegia iruditzen zaigu ezagutzen ez den talde bati bizkarra ematen zaion bitartean, kalitate dugarria duten beste hainbat talde kontuan hartzea. Agian eskertu egin beharko genuke denok talde berdinak gustuko ez izatea, baina hala eta guztiz, denon gustuak efrepetatzea ez legoke gaizki. Norbaitek bere kriterioa inposatu nahi badu guk belarriak irekita edukiko ditugu, baina aldez aurretik, norberak bereak ireki ditzala. Itsuen erreinuan Tartalo errege.

Iban Urizar
Julen IT

**INTERESEHO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal KifOI Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua .. 742158
 Mendaroko Udala . 756100
 Ongizate zerbitzua .. 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Lihurutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .. 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreitu rre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastelxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español . 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

**21
ostirala**

19:00
**MUSIKESKOLAKO
 GAZTEEN
 BANDAREN
 KALEJIRA**

19:30
**MUSIKESKOLAKO
 IKASLEEN
 KONTZERTUA**
 Herriko Antzokian

20:00 **ARGAZKI
 ERAKUSKETAREN
 INAUGURAZIOA**
 Kultur Etxean
 Abenduaren 13ra arte
 Antolatzailea: Ongarri
 Argazki Kolektiboa

22:15 **ZINEA**
 "Volcano"

22:30 **ANTZERKIA**
 Taldea: Tunantes del
 Norte
 Antzelana: "Soo bitxo"
 Gaztetxean
 Antolatzailea: Errotatxo

**2
larunata**

22:30 **BERTSO ETA
 MUSIKA JAIALDIA**
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Errotatxo

22:30 **KONTZERTUA**
 "Dantzut" eta
 "Debekatuak"
 Gaztetxean

**23
igandea**

13:00 **HIESA**rekin
**HILDAKOEI
 OMENALDIA**
 Jarraian, giza-katea
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Errotatxo

16:30-19:30-22:15
ZINEA
 "Volcano"

**24
astelehena**

19:30-22:15 **ZINEA**
 "Volcano"

**27
osteguna**

22:15 **ZINE KLUBA**
 "Breakdown"
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Kluba

**28
ostirala**

18:30 **ODOL
 ATERALDIA**
 P. M. Urruzuno 8an

22:15 **ZINE KLUBA**
 "Breakdown"
 Antolatzailea: Ongarri
 Zine Kluba

• • 111 • • • • • R • • • • •

**11
NE
A**



Volcano

Los Angeles hirian hondamendi ugari gertatu dira baina handiena gertatzeko dago oraindik: Wilshire inguruan sumendi bat erupzioan sartzen da. Kaleak labaz betetzen dira eta biztanleak ihesi ateratzen dira. Egoera larri honetan gizon batek bakarrik egin diezaioke aurre egoerari: Larrialdi Zerbitzuko buruak, Mike Roark, Zuzendaria: Mick Jackson Antzezleak: Tommy Lee Jones, Anne Heche, Don Cheadie.

• • R EER RER • RR RE • MR • • • • •

• Santa Zezillako kontzertuak

Inazio Bereziartua Musi-keskolako ikasleek Santa Zeziliaren omenezko kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 21. Arratsaldeko 19:00etan Gazteen Bandak eta Txistulari taldeak kalejira egingo dute ondoren izango den kontzerturako giro aproposa sortze aldera. Arratsaldeko 19:30ean hasiko da musika emanaldia Herriko Antzokian. Lehendabizi akordeoi taldeak "Fiesta Mexiacana" obra joko du. Segidan oboe eta piano bikotearen txanda izango da, Haendel-en 3. kontzertua eskainiko dutelarik. Ondoren flauta taldeak joko du eta hauen ostean saxofoi taldeak.

Azkenik, piano emanaldiarekin emango zaio amaiera lehen zatiari. Bigarren zatian flauta eta kitarra bikoteak hartuko du parte lehenik "Elgoibarko teilatuetan hitz egiten" obrarekin. Segidan "Ghost" pelikulako doinuak interpretatuko ditu talde instrumentalak. Bibolina eta piano bikotea eta koral taldearen txanda izango da jarraian. Kontzertuari amaiera emateko Gazteen Bandak, Gorka Mujikaren zuzendaritzapean, "The Lion King", "Tijuana Trumpets" eta "Meet the Flistones" piezak joko ditu, pelikula ezagunetako doinuak denak.

• Antzerkia, hertso laldaldia eta HIESaz hildakoel omenaldia

Errotatxo, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Elkar-tea HIESari buruzko Informazio eta Prebentzio Astea ospatzen ari da. Antolatu dituzten ekintzen artean, gaur, hilak 21, Tunantes del Norte Arrasateko antzeztaldearen eskutik, "Soo bitxo" lana ikusi ahal izango da Gaztetxean. Antzerkia gaueko 22:30ean hasiko da. Bihar, larunbata, gaueko 22:30ean, Jesus Mari Irazu, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio bertsolarien jarduna izango da Herriko Antzokian. Gai-jartzaile lanetan Anjel Ugarteburu arituko da. Bertso saioaz gain, Alicanteko ACOSPA fundazioak prestatutako diapositibak emango dira eta Musikeskolakoek ere parte hartuko dute. Sarrera 300 pta.koa da. Igandean, hilak 23, eguerdiko ordu batean, HIESarekin hil diren elgoibartar guztiei omenaldi beroa eskainiko zaie Plaza Handian. Haritz Dantzari Taldeak, Bertsolari eta Trikitilari Eskolakoek, Txalaparta taldeak eta Bereziki taldeak hartuko dute parte. Segidan kontzentrazioa eta giza katea egingo dira.

• Kontzertua Gaztetxean

Bihar, larunbata, kontzertua egongo da Gaztetxean gaueko 22:30ean hasita. Bi taldek joko dute: **Dantzut** ermuarrak eta **Debekat** taldeak. Sarrera doan da.

• Odol ateraldia hilaren 28an

Datorren ostiralean, hilak 28, aurrez deitutako herritarrei odola aterako zaie Odol Ernaileen Egoitzan. Arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean Pedro Migel Urruzuno kaleko 8ko egoitzatik pasa daiteke.



ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: J. Mostow
Antzezleak: K. Russell, K. Quinlan, J. T. Walsh.

Breakdown

Jeff eta Amy senar-emazteak Massachusetts-etik Californiara bizitzera joatea erabakitzen dute. Arizona basamortuan aberia izango dute autoan. Garraiolari batek laguntza eskaintzen die eta emaztea berarekin joaten da gertu dagoen herri batera mekaniko baten bila. Baina Amy ez da gehiago agertuko. Suspentsea eta akzioa konbinatzen dituen artisaun lan bat da, errepideko "thriller" ederra.

I51111W1111

FARMAZIAK

Egunez Gauez

22 Yudego* Anduaga

23 Yudego* Anduaga

24 Yudego Yudego

25 Etxeberria Etxeberria

(Errosario kalean)

26 Yudego Anduaga

27 Bidasolo Zabaleta

28 Etxeberria Etxeberria

(Santa Ana kalean)

* (eguerdiko 2ak arte)

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

23 igandea Idarraga

Salerosketak

• SALDU •

- Bigarren eskuko antezko txaketa herdea saltzen da. Egoera onean. Merke. 74 25 36 (gauzez)
- Renault Expres furgoneta diesela salgai. g 74 02 09 (gauzez)
- Gabairen "Gure Herria" kornikien 8 tomoak salgai. Egoera onean. te 74 07 25
- Motor bat salgai. Honda CR'94 250. Egoera onean, oso gutxi erabilia. 1r 74 42 32 (Iban)
- Katakume pertsak salgai. Bi hila betekoak, gorria, grisa edo beltza, tr 74 37 21 (Mari Angeles)
- Taberna traspasatzen da. tr 74 00 16
- Renault Clio 1.9 Diesela, SS-AN salgai. Kilometro gutxi ditu. Oso egoera onean. 17 58 40 39 (Arratsaldez)
- Erropa-Iehorgailua saltzen da, tr 74 13 40
- Edredoi nordikoa saltzen da 1,50x1,90 oherako. 15.0(X) pta. tr 74 15 00 (gauzez)
- Errepideko bizkleta salgai. Shimano 105. Egoera onean. tr 74 07 85.
- SIGMA garbigailuita eta kirten hateko kafetera express elektrikoa saltzen ditut, tr 74 39 75,
- Bigarren eskuko diskak eta liburuak saltzen ditut. Prezio interesgarria, Zerrenda ikusi nahi haduzu, deitu. tr 74 12 04
- Taberna traspasatzen da Deban. Martxan dago eta bezero onak ditu. Orain dela gutxi herritua. tr 19 19 54
- 62 metro karratuko lokaia alokatzen edo saltzen da Kalamua 7an, tr 74 18 94/ 945 27 78 08

Bestelakoak

- ♦ Lepoko zapi hat galdu dut (hi ahate ditu). tr 74 06 17 (Saritu egingo da).
- Pilarreko Amabirjinaren irudia duen dornina aurkitu dut. tr 74 13 37
- Begi urdindun katu txuria aurkitu dut. Lau hilahete inguru ditu. tr 20 20 18.
- Forro polar urdin iluna topatu nuen Madalan. Galdu duenak jo dezala Udaltzaingora.
- Zapatuan urrezko pultsera galdu nuen. tr 74 31 44
- Volkswagen markako giltza galdu dut. tr 74 05 32

Garajeak

- Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzeart, it 74 19 70
- Garaje marraduna alokatzen da pista beltzean. tr 74 00 70 (gauzez)
- Garaje itxia alokatzen da Pista Beltzean. tr 74 03 81
- Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. a 74 27 89
- Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa, 74 04 34
- Garaje itxi hat saltzen dut King-Kong-en. tr 76 17 95
- Garajea saltzen da Juan Mugerza kalean. tr 74 12 04
- Pista heltzean garaje itxia katzen dut. 74 03 81/ 74 15 01 (Gauzez)
- Garajea alokatzen da San Roiken. Aterpe tabernaren azpian. tr 74 33 39
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. is 74 05 49 / 74 09 09

Lana

• ESKAINTZM

- Londresen hizi den Elgoiharko familia hatek neska euskalduna hehar du umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. te 74 08 17
- Neska euskalduna hehar da jate-txean lan egiteko. Esperientziarekin. Ir 74 37 22 (Goizeko 9etatik 11 etara)
- Emakumea hehar da harrarako eta sukaldarako. te 74 37 60
- Neska euskalduna hehar da haur hat zaintzeko, tr 74 29 33 (gaueko 7etatik 9etara)

• ESKAERA •

- Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. tr 74 15 09 (Victoria)
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak eta zaharrak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldako lanak egiten 74 37 22 (2 1 :00etatik 23etara)
- Lokal handiak garbitzeko emakumea eskaintzen da. Esperientzia daukat. 1/ 74 39 75 (Arrate).
- Esperientziadun neska etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. tr 20 06 94 (Monse)
- Sukaldaria eskaintzen da 15 urteko esperientziarekin. tr 15 08 38 (Angel)

Etxebizitzak

- Etxea salgai Pedro Muguruzan, Buhardilla, sukalde, sala. 2 logela eta bainugela. a 74 14 23 (Egurdiko 12etatik 2etara).
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Berritua dago. tr 929 43 24 22 (Arratsaldeko betatik aurrera).
- Etxehizitza salgai Dehan. Alameda parean, hondartzatik 50 metroa. Berritua. tr 908 57 95 89
- Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. AItzariekin. tr 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin, amueblatua. tr 74 22 25
- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekua, garhigailua eta telebista ditu eta hondartzako lehen ilaran dago, tr 74 20 31

Partikularrak

- Eskola aholkularitza partikularrak enuten dira. Gela eta teknologia tailerra. tr 907-15 30 62/74 41 16
- Injeneru tekniko industrialak matematika, fisika, kimika, marrazketa eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditu (gazte-eraz). tr 74 22 29 (Begoila)
- Alemanezko klase partikularrak ematen ditut, tr 74 00 98
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke euskaraz. tr 74 27 78 (Sara)
- Lizentziatuak fisika eta kimikako klase partikularrak emango tuzke. Maila guztiak. tr 74 43 98/74 08 09 (Marian)

Agurrak

- Zorionak Tania Sanzi hilaren 18an urteak bete zituelako, rraitz, Amaia eta Janireren partez.
- Zorionak Leire Odriari igandean, hilak 23, 14 urte heteko dituelako. Lagunen partez.
- Zorionak Unai Mujika Leiaristiri hilaren 15ean 11 urte bete zituelako. Ikastolako 6, mailako partez. Aupa Muxit
- Zorionak Mila Tudancari hilaren 20an urteak bete zituelako. Nerea eta Aneren partez.
- Zorionak Naiara Bernali hilaren 14an urteak bete zituelako. Muxu haundi bat kuadrilako partez.

+ Zorionak Beatriz Figueredori hihar, hilak 22, urteak betetzen zituelako. Musu haundi hat kuadrilako partez.




• Superzorionak Ainaia Conderi hilaren 20an 4 urte hete zituelako, Egun zoriontsua igaro dezala, here gurasoen eta ahlzpa Cristinaren partez,

♦ Zorionak Amaia Pitharasi hilaren 17an 5 urte hete zituelako. Amaia Conchi, osaba Jesus, osaba Gorka eta Martaren partez.



• Zorionak Borja Fernandezi igandean, hilak 23, 6 urte heteko dituelako. Egun alai hat igaro dezaluzula opa dizuguzure gurasoek eta arreha Nereak.



• Zorionak Eneritzi atzo, hilak 20, 6 urte hete zituelako. Aitaren partez.



• Zorionak go Zubiaurreri igandean, hilak 23, 7 urte heteko dituelako. Aitaren eta amaren partez,



• Zorionak Iulen Agirregomezkortari laren 18an 4 urte hete zituelako, Arreha Itsasne eta lehengusina Alazne eta Maitaneren partez



• Non ote dago Marijose? Ez al daka telefonorikan deitzeko? Kafe Usaineko taldeak,



• Hilaren 25ean 9 urte heteko dituen Melanyri zorionak guraso, anaia Kevin, osaba eta aitona-amonen partez.



Bigarren eskuko autoen erakusketa berezia

ETORMOBIL en

Marka guztietako autoak

Garantia osoarekin

Era guztietako **prezioak**

Auto berrilerriak 197 urtekoak 0 kilometroekin)



ZABALIK:

Iarunbatean, egun osoan

Igandean, 10:30etik 13:30era



Bisita gaitzazu ETORh10BILen



PEUGEOT



ETORMOBIL

Otaola, 22
Tel: 20 09 66
EIBAR

Ez duzu **98**ko
Gida
Komertzialetik
kanpo geratu nahiko,
ezta?



Zure enpresa, denda edo lantegia gidan azaltzea
nahi baduzu, deitu **BARRERA**

Tel./Faxa: 74 37 04